



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 29a

123. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).  
—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (10. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errefusa dezan ospitaleetan modu ambulatorioan ematen diren farmakoen koordainketa berria. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).  
—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (12. or.).  
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere babes adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena.**

*LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2013ko uztailaren 1eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**IRIZPENA**

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Batzordeak 2013ko urriaren 17an eta 23an egindako bileretan onetsia.

**Foru Lege proiektua, Nafarroako hondakin uren saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legeak zehaztu zuen zein diren Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendaria garatzeko behar diren eskumen eta antolaketa esparruak, bai eta diru baliabideak ere. Foru lege horretan berean saneamendu kanona sortu zen, zerbitzu hori emateari atxikitako tributu baliabide gisa; kanonaren bilketak, toki azpiegituren planek eta Europar Batasunetik etorritako funtsek aukera eman dute Foru Komunitateak bete ditzan arazketaren arloan Batasuneko zuzentarauetan ezarritako eskakizunak, bereziki 91/271 Zuzentarauan ezarritakoa,

eta haren helburuetako batzuk izan daitezzen zerbitzua zabaltzea Komunitateko bizilagun guztiengana eta Uraren 2000/60 Esparru-Zuzentarauan ezarritakoa betetzea.

Bestalde, Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariaren finantza askitasuna dela eta, autonomia osoa baitu dagoeneko Nafarroako Aurrekontu Orokorreko eta, beraz, autofinantzaketa saneamendu kanonaren bilketari esker, beharrezkoa da planeko tarifak aldizka gaurkotzea.

Gaurkotze hori, 10/1988 Foru Lege horren 13. artikulua dioenez, urtero egin beharko da Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legean. Nolanahi ere, eta Nafarroako aurrekontu orokorrekiko autonomia hori kontuan hartuta, egokia da ez lotzea nahitaez kanonaren gaurkotzea aurrekontuei buruzko legearekin, bestelako lege xedepanak ere egokiak izan baitaitezke, zenbait zerga aldatu eta tributu arloko beste neurri batzuk hartzeari buruzkoa, adibidez, betiere errespetatuz Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikuluan aurreikusitako lege erreserbaren printzipioa.

Foru lege honen testuan finkatuta gelditzen dira, halaber, saneamendu kanonaren tarifa berriak, ezin izan baitziren onetsi Aurrekontuen legean. Onetsitako zenbatekoak bat datoz NILSA sozietate publikoaren Plan Estrategikoan, haren Administrazio Kontseiluak onetsian, finkatutakoekin. Plan horren berri eman zitzaion Foru Parlamentuari Lehendakaritza, Barne eta Administrazio Publikoen Batzordeak 2012ko maiatzaren 9an egindako bilkuran.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legea aldatzen da, halako moduan non saneamendu kanonaren tarifak gaurkotzeko egokien irizitako foru legea erabili ahal izanen baita.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen aldaketa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 10/1988 Foru Legearen aldaketa.

**Bat.** 13. artikulua aldatu egiten da; honela gelditzen da idatzirik:

“13. artikulua:

Aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa urtero finkatuko da foru lege batean, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Finantza askitasuna, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

b) Progresibotasuna ezarpenean.

c) Erabiltzaileentzako tratu berdintasuna, sortzen duten kutsadura mailaren arabera.”

**Bi.** 15. artikulua 2. idatz-zatiari bi lerrokada gehitzen zaizkio, eta artikulua testu hau izanen du:

“15.2 artikulua.

Kanona aurreko idatz-zatian aipatutako enpresa publikoaren bidez kobratzen bada zuzenean, premiamendu-bidearen kudeaketa Nafarroako Zerga Ogasunaren organoen bidez egingen da.

Kanona ur-hornitzaile diren entitateek jasotzen badute, premiamendu-bidearen kudeaketa entitate horiei aplikatzeko zaien diru-bilketako prozeduraren arabera egingen da.”

**Hiru.** 16. artikulua aldatu egiten da; honela gelditzen da idatzirik:

16. artikulua.

“1. Arau-hauste eta zehapenen arloan, Tributuei buruzko abenduaren 14koa 13/2000 Foru Lege Orokorrari eta bere garapen-arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Aurreko artikulua aipagai duen enpresa publikoak kanona kudeatzeko eta likidatzeko gauzatutako egintzen kontra, tributu-betebeharra duenak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen ahalko du, eta Nafarroako Gobernuak aztertu eta ebatzi beharko du erreklamazio hori, Tributuei buruzko abenduaren 14koa 13/1312000 Foru Lege Orokorraren IV. tituluko VII. kapituluak duen 4. atalari eta horren garapen-arauei jarraikiz.

3. Ur-hornitzaile diren entitateek kanona kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko gauzatutako egintzak entitate horiei dagokien araudiaren arabera aurkaratzen ahalko dira.”

**Xedapen iragankor bakarra.** Tarifa berriak.

1. Aplikatu beharreko saneamendu kanonaren tarifak honakoak izanen dira, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera:

a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,53 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur erabilerei, etxekoak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasak: 0,66 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoetara konektaturik ez dauden erabiltzaileak eta beharrezkoak diren baimen administratiboak dituztenak, erakunde eskudunek emanak: 0,08 euro/metro kubikoa. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamendu kanonari ur ihesak daudenean isuria kalkulatzeko den kasurako, edo hobari sozialak aplikatzeko.

3. 3. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaiei Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegiatiko lohien lerroetan:

Neurketa	Prezioa
5 m <sup>3</sup> arte	40,00 euro
10 m <sup>3</sup> arte	80,00 euro
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	8,00 euro /m <sup>3</sup>

4. Aurreko zenbatekoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proiektu hori 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**IRIZPENA**

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2013ko urriaren 9an eta 22an egindako bileretan onetsia.

**1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Bidegabekeria bat aitortu eta biktimak babestek botere publikoen lehentasunezko helburu bat izan behar du zuzenbide estatu batean. Hori dela eta, berebiziko garrantzia dauka eragindako kaltea konpontzeak, babesgabetasun egoera aitortzeak eta eskueran dauden bitarteko guztiak jartzeak egindako kaltea konpontzeko, aitortzeko, gogortzeko eta gainditzeko.

Nafarroan, frankismoaren biktimek, *de facto*, babesgabetasuna pairatu zuten foru erakundeen aldetik, 2003ko martxoaren 10era arte. Egun hartan, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarte-

ak eta Alargunen Herria Elkarteak izandako ekimenez, adierazpen bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, "1936ko kolpe militarren ondorioz fusilatutako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa". Adierazpen hori mugari bat izan zen 1936ko estatu kolpearen biktimen aintzatespenerako, baina, batez ere, jauzi kualitatibo bat izan zen erakundeen aldetik, jarraipena eman ziena Nafarroako zenbait udal eta kontzejuk eginak zituzten urratsei, frankismoaren biktimek egia, ordaina eta justizia izateko daukaten eskubidea aitortzeko eta azpimarratzekoak.

Nafarroan, gogorarazi beharra dago, ez zen Gerra Zibilik izan, ez zen bi gerra-lubakitan aurrez aurre jarritako bandorik egon. Nafarroako Foru Komunitatean, ezberdin pentsatze hutsarengatik, 3.400 pertsona baino gehiago erail zituzten, eta foru lege honen xedea da kalte horrengatik ordaina ematea, ahal den neurrian, eta ahanztura instituzionaleko urteak artezteak.

Kontuan hartu beharra dago gerra zibil guztiak desoreka bat eragiten dutela oroitzapenean, zeren eta irabazleek beren ikurrak, estandarteak eta legeak inposatzen baitizkiete galtzaileei. Halere, urte batzuen buruan, gizarte gehienetan, adiskidetzeari, hurbilketa gertatzen da, eta oroitzapenaren desoreka berandu baino lehen desagertzen da. Alabaina, Espainian, Gerra Zibilaren ondoren, diktadura luzea etorri zen, eta, horrenbestez, desoreka izugarria gertatu zen irabazleen eta galtzaileen oroitzapenaren artean.

Gertatutakoaren bertsio ofizial bakarra 1939. urtean ezarritako erregimenak prestatu eta Espainiako gizarteari helarazitakoa izan zen. Gainera, Amnesty International-ek 2005eko uztailaren 18ko txostenean zioen bezala, "erregimen frankista amaiturik, krimen horiek ez ziren inpartzialtasunez argitu, eta ordainik eman ez zitzaizkien biktimen eskubideak ere ez ziren aintzat hartuak izan."

Erailetaz gainera, eraildakoen senitartekoek amaigabeko lazeriak pairatu behar izan zituzten. Diktadura batek berezko dituen beheramenduei, senitartekoen desagerpena gehitu behar izan zitzairen. Eta horixe da, hain zuzen ere, foru lege honen helburu eta oinarri nagusietako bat: ahal den neurririk handienean aurre egitea garai hartan exekutututako pertsonen desagerpenaren iraupenari. Nafarroa bezalako erkidego batek ezin du utzi eta ez luke utzi behar gogoan hartu gabe arazo humanitario hori. Hori dela eta, foru lege honetan babes- eta bilaketa-neurriak garatzen dira desagerututako pertsona horiek aurkitzeko.

Oroitzapen historikoaren berreskurapena ez da oraindik amaitu Nafarroan. Prozesu honetan nabarmendu daitezkeen gertakari adierazgarriak dira biktimen senitartekoek berek eginiko lana, oroitzapenaren berreskurapenean laguntzeko Nafarroan beren kasa sortutako talde ezberdinak, garai hartan gertatutakoen argigarri izan diren ikerketa eta argitalpen ugariak, Nafarroan biktimei egin zaizkien herri-omenaldiak eta esker ona adierazteko herri-ekitaldiak, eta Sartagudan oroitzapenerako jarritako parke erreferentziala. Urte hauetan, 2003ko martxoaren 10ean onetsitako adierazpen instituzionalak aitortzen duen moduan, "Franco diktadorearen heriotzaren ondoren, maiz hildakoen ahaideek eta lagunek atera zituzten hilotzak ezpondetatik, sorroetatik edo paretetatik. Dena egun-argiz egin zuten, hurbilenganako maitasunez eta duintasunez, baina aitorten ofizialik gabe". Nafarroako Parlamentuan 2013ko apirilean onetsitako irizpena, zeinak parlamentu-talde guztien babesa jaso baitzuen 36ko biktimei buruzko lantaldean, orain arteko azken erreferentzia da biktima horien oroitzapena oneratzeko bidean.

Hori dela eta, azpimarratu beharra dago ezen, Nafarroako fusilatuen senitartekoak bildu dituzten elkarteek gorpu desagertuak bilatzeko eta aurkitzeko lanak egin dituztenean, azken urteetan laguntza ofizialarekin, ez diotela konponbidea eman arazo partikular bati, baizik eta arazo kolektibo bati egin diote aurre, gizarte osoaren arazo bati, gure imaginario kolektiboaren eta gure oroitzapen demokratikoaren arazo bati. Azken batean, elkarte horiek, jada 70eko hamarkadatik, erakunde publikoek aurre egin beharrekoa zen egin behar bat bete dute haien ordez.

Horri dagokionez, Nazio Batuen Erakundearen 47/133 Ebazpenak (1992ko abenduaren 18ko Bartzar Nagusiak hartutakoa) Pertsona Guztiak Desagerpen Behartuen aurka Babesteari buruzko Adierazpena onetsi zuen, eta adierazi zuen desagerpen behartuek zuzenbidearen nagusitasuna, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak

errespetatzen dituen gizarte oren balio sakonek ukitzen dituztela, eta haien praktika sistemati-koa gizateriaren aurkako krimena dela. Ebazpenak, desagerpen behartuen prebentzioa eta amaiarazpena jasotzeaz gainera, ikerketak ere hartzen ditu bere barrenean, desagertutako pertsonen berri izan bezain laster egitekoak, desagerpena gertatu zenetik igarotako denbora kontuan hartu gabe.

Foru lege honek erantzuten dio diktadura frankistaren biktimak babestearen betebeharrak humanitarioari, baina, horretaz gainera, honakoei ere erreparatzen die: arestian adierazitako eta 2003ko martxoaren 10ean onetsi zen "36ko gerraren ondorioz fusilatutako herritar nafarrak omentzearen eta haiei dagokien ordain morala ematearen aldeko adierazpenari"; Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzei buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legean zehaztutakoari; eta Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarrek 2006ko martxoaren 17an Parisen adierazitakoari –izan ere, Espainian 1936tik 1975era bitarte giza eskubideen aurka egindako bortxaketa larriak salatu zituen–.

Foru lege honek, I. titulu osoan, hilobien eta desagerpenen fenomeno konplexuari ekiteko babes-esparrua, prozedura eta tresna egokiak ezartzen ditu.

Horretarako, hilobi-mapa dinamiko bat, etengabe berritua, egiteko beharra zehazten da. Hori, izan ere, ezinbesteko ekintza bat da, zeren eta ez baitago datu fidagarririk ez desagertuen kopuruari buruz, ez eta Nafarroako lurraldean dauden hilobi motei buruz ere.

Gainera, Nafarroan hilobi-mapa bat egitearen helburuetako bat da gizarteari errealitate hori ezagutzera ematea eta egia argitzen laguntzea. Horretarako, behar diren tresnak ezarri beharko dira hilobiratze klandestinoak dituzten tokiak babestu eta zaintzeko neurriak hartzea bideratuak, espoliazioa, istripuak edo bestelako gertakariak saiheste aldera.

Elementu berezi gisa, garrantzitsua da, gainera, hiru fenomeno aipagarri araugintzaren esparrutik ekitea: Alfontso XII.aren Gotorleku edo Ezkabako Gotorlekuan presondegi bat egotea, bi kontzentrazio esparru egotea (Iruñean eta Iratzen) eta bortxazko lana arazi zen dozenaka esparru (Gatibuen Kontzentrazio Esparruen Ikuskaritzaren menpe egon ziren 1937tik eta 1940ra artean, eta Zigor Batailoien eta Kontzentrazio Esparruen Burutzaren menpe 1940tik 1942ra bitartean). Beharrezkoa da horretan jardutea, leku horietan

gauzatutako errepresioaren neurriarengatik ez ezik, familia askorentzat Ezkabako Gotorlekuak, kontzentrazio-esparruek eta bortxazko lanerako esparruek dauzkaten inplikazioengatik ere.

Bidezkoa da, halaber, Nafarroako Parlamentuaren 2003ko martxoaren 10eko adierazpenean jaso zen bezala, "Nafarroako erakundeek baliabideak jartzea askatasunaren aurkako elementu sinbolikoak, denok gaingitu nahi dugun iragan horren adierazle ere badirenak, desagerrarazteko". Horri dagokionez, berretsi eta osatu beharra dago Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrak eta Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikulua ezarritakoa, zeren eta, urteak igaro diren arren, bai baitaude oraindik ere sinbolo batzuk kendu behar diren liratekeenak, biktimentzat eta gizarte demokratikoaren balioentzat laido garri izateagatik.

Lege honek xede du, halaber, gertatutakoa gogoraraztea, eta, exekutatuak izan ez baziren ere, kolpe militarren arduradunen eskutik Nafarroako hainbat herritan zigorra, errepresioa, umiliazio publikoa eta arbuio instituzionala modu sistematikoan, planifikatuan eta "eredugarri" gertatzeko asmoz jasan behar izan zuten pertsonen oroitza-pena –gehienak emakumeak– oneratzeko.

Foru lege honek, azkenik, "oroitzapen historikoaren berreskuratzea" kontzeptua ahalegin gisa ulertzen du, desagertutako pertsonen gorpuzkiak berreskuratzea eta, azken batez, diktadura frankista sozialki eta instituzionalki legitimaziorik gabe uztekoa; eta horrez gain, estatu-kolpe frankistaren biktima izan ziren pertsonen aitorten publiko eta oneratzeko moralerako araugintza-ahalegin gisa.

## ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da 1936ko uztailearen 18tik aurrera izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten pertsonen edo errepresio frankistaren biktima izan zirenen oroitzapen historikoa leheneratu, aintzat hartu eta oneratzeko.

2. Halaber, foru lege honek erraztasunak eman nahi ditu Nafarroan garai horretan gertatutakoak ezagut daitezkeen.

3. Ezartzea 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako pertsonen senitartekoek eskubidea duteela beren senitartekoak lurpetik ateratzeko eta duintasunez hilobiratzeko.

### 2. artikulua. Gizateriaren aurkako krimenak.

Nafarroako Foru Komunitateak modua egingen du botere publikoek Nafarroan aplikatu dezaten Nazio Batuen Erakundeak gizateriaren aurkako krimenen arloan duen doktrina.

**3. artikulua.** 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako pertsonak lurpetik ateratzeko eskubidea.

1. 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako pertsonen senitartekoek eskubidea izanen dute beren senitartekoak lurpetik ateratzeko eta duintasunez hilobiratzeko. Nafarroako Gobernuak beharrezkoa den laguntza ekonomikoa eta teknikoa eta giza laguntza eman behar du ikerkuntza eta lurpetik ateratzeko prozesu osoan zehar, jarduera horrek eragindako gastuak Nafarroako Gobernuak bere gain hartuta.

### 4. artikulua. Neurriak.

1. Honakoak izanen dira erkidegoko Administrazioak 1. artikuluan adierazitako helburuak betetzeko aurrera eraman beharreko neurriak:

a) Hobi-ateratzeetarako protokoloa onetsi eta hilobi-mapa bat egin dadin.

b) Zuzenean jardutea desagertutako pertsonen gorpuzkiak berreskuratzea.

c) Lurperatze tokiak zaintzea, seinalezatzea eta babestea.

d) Egon litezkeen aipamen eta sinbolo frankistak kentzea.

e) Hitzarmenak eta bestelako tresnak garatzea Nafarroan diktadura frankistan zehar gertatutakoak aztertzea eta ezagutzeko.

f) Frankismoaren biktimak gogoratzeko dauden monumentuak babestea, eta pertsona horiek aintzatesteko adierazpen eta aipamenak bultzatzea.

2. Aurreko idatz-zatian zehaztutako jarduketak udalekin, fusilatuen senitartekoekin elkartekin, oroitzapen historikoaren arloko elkartekin eta entitate akademikoekin lankidetzan arituz eramaten dira aurrera.

3. Nafarroako Aurrekontu Orokorreran foru lege honen helburuak betetzeko behar diren kontusailak ezarriko dira; kasua bada, entitate publiko eta pribatuentzako behar diren diru-laguntzen bitartez.

**5. artikulua.** Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoa.

1. Arloan eskumenak dauzkan departamentuaren menpean, Oroitzapen Historikoaren arloko

Koordinazio Batzorde Teknikoa eratuko da. Honako eginkizunak izanen ditu:

a) Elkartea, erakunde akademiko eta entitate publikoen jarduketak koordinatzea, foru lege honetan ezarritakoak zuzen bete daitezzen.

b) Oroitzapen historikoaren arloko planak egitea, arau-garapenean parte hartzea eta bidezko diren gomendioak onestea.

2. Batzordearen osaera erregelamendu bidez zehaztuko da. Nolanahi ere, honako hauen ordezkariak edukiko ditu: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako administrazio publikoak, fusilatuen senitartekoak ordezkatzan dituzten elkarteak eta historiaren, auzitegiko medikuntzaren eta arkeologiaren arloekin lotutako entitate akademiko eta profesionalak.

## I. TITULUA

### Desagertutakoak direla-eta administrazio publikoek dauzkaten betebeharrak

#### 6. artikulua. Hilobi-mapa.

Nafarroako gaur egungo hilobi-mapa mantendu eta, kasua bada, eguneratu egingen da, eta Administrazioak, horretarako, kasuan kasuko kontusaila jarriko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

7. artikulua. Lurpetik ateratzeetarako protokoloa.

1. Nafarroako Gobernuak, Justizia Ministerioarekin lankidetzan, diktadura frankistaren biktimen lurpetik ateratzeei buruzko jarduketa-protokolo bat onetsiko du, irailaren 26ko PRE/2568/2011 Aginduaren xedapenak egokituz. Agindu horren bitartez, argitara ematen da Ministroen Kontseiluaren 2011ko irailaren 23ko Erabakia, zeinak agintzen baitu Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktimen lurpetik ateratzeetarako jarduketa protokoloa Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

2. Akzio publikoa aitortzen da Nafarroako administrazio publikoei eskatzeko hilobiak aurkitzeko eta lurpetik ateratzeak egiteko prozedurari hasiera emateko, protokolo horretan ezarrita dagoenaren arabera. Gorpuzkiak aurkitu eta haien hobietatik atera eta lekualdatzeko gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordainduko dira.

3. Lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko da Iruñeko Udalarekin, propio prestatutako toki batean hilobiratzeko desagertutako eta hobietatik ateratako pertsonak, beren senitartekoek erreklamatu ez dituztenak. Toki hori berriaz seinaleztaturik egonen da, Nafarroan Gerra Zibilean eta frankismoan gertatutako jazoeren azalpena eginda.

4. Betiere, beharrezkoak diren tresnak abiaraziko dira, senitartekoei lagun-egite psikologiko egokia emate aldera desagertutako pertsonen gorpuzkiak aurkitzeko eta, kasua bada, hobietatik ateratzeko prozesuan zehar.

5. Baldin eta, edozein zirkunstantzia dela eta, norbaitek aurkitzen baditu Gerra Zibilean edo Francoren diktaduraren garaian desagertutako pertsonenak izan litezkeen gorpuzkiak, berehala jakinarazi beharko dio Foru Administrazioari.

#### 8. artikulua. ADN bankua.

ADN banku bat sortuko da, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren menpe egonen dena, non gure erkidegoan lurpetik ateratako gorpuzkien hezurren laginak kontserbatuko diren, bere ADN sekuentziarekin. Era berean, familian biktimaren bat izandako edozein pertsonak bere ADN sekuentziatzeko laginak har diezazkieten eskatzen ahalko du, erakunde horretan biltzen diren datuekin alderatzeko. Proba horiek eskaera egin eta hiru hilabeteko epean aztertu beharko dira; saihestu egin beharko da laginen hondatzea, eta arindu, era horretan, prozesu guztia, bereziki adinean aurreratuta dauden pertsonen kasuan.

#### 9. artikulua. Oroitzapenaren tokiak.

1. "Nafarroako Oroitzapen Historikoaren Tokia" figura ezartzen da.

2. Halako tokitzat deklaritzen ahalko dira altxamendu militarrean, Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren garaian izandako gertakari bereziki nabarmenei lotutakoak; esate baterako, hobi edo lurperatze-leku kolektiboak, atxilotze-lekuak, esklaboek egindako obra publikoak edo garai hartako gertakarietan nabarmendu ziren gunek. Deklarazioa egitea Nafarroako Gobernuari dago, foru lege honetako 3. artikuluan araututako batzordeak proposamen loteslea eginda. Deklarazioa Nafarroako Oroitzapen Historikoaren Tokien Katalogoan inskribatuko da.

3. "Oroitzapen historikoaren toki" deklaraturako ondasunen titularrak diren administrazio publikoek ziurtatu beharko dute haien iraunkortasuna, identifikazioa eta seinalizazio egokia.

4. Toki horien titularrak pribatuak direnean, helburu horiek erdiesteko ahaleginak egingen dira, oroitzapen historikoaren arloko departamentu eskudunaren eta pertsona nahiz entitate titularren arteko akordioaren bitartez.

**II. TITULUA**

**Administrazio publikoek eta entitate pribatuek dituzten betebeharrak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzeari dagokionez, bai eta sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak baliogabetzeari dagokionez ere**

**10. artikulua.** Sinbolo, idazkun eta aipamen frankisten errolda.

Oroitzapen Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistei buruzko errolda bat eginen du, eta Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio.

**11. artikulua.** Sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzea.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak kentzeko. Neurri horien artean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak kentzea ere sartu ahal da.

**12. artikulua.** Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzea.

Nafarroako administrazio publikoek, foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu eginen dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonak jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainetako gorapamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak eginen dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko eginen dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete.

**III. TITULUA**

**Diktadura frankistan zehar Nafarroan izandako gertakarien ikerketa eta ezagutza**

**13. artikulua.** Nafarroako Oroitzapen Historikoaren Agiritegia.

1. Nafarroako Gobernuak, departamentu eskudunaren bitartez, Nafarroako Oroitzapen Historikoaren Agiritegia sortuko du.

2. Agiritegi hori sortzeko, Nafarroako Gobernuak lankidetzan sustatuko du arloarekin lotura duten artxibo administratibo, erlijioso, militar edo partikularren titular diren erakunde publiko eta pribatuekin.

3. Betiere, Nafarroako Gobernuak artxibo publiko nahiz pribatu horien erabilera erraztuko die pertsona interesdunei.

4. Nafarroako Oroitzapen Historikoaren Agiritegiak errolda bat prestatuko du Gerra Zibilean eta diktadura frankistan desagertutako pertsonekin, eta horretarako kontuan hartuko dira biktimen familiek, instituzio publikoek, erakunde pribatuek edo ikerketa akademikoek ematen dituzten datuak.

5. Horrelakoetan, biktima bakoitzaren heriotzari edo desagertuari buruzko zirkunstantzien gaineko ahalik eta informazio gehiena jasoko da.

6. Eraildako eta desagertutako pertsonen errolda eratzten da izaera publikoko erregistro administratibo gisa.

**14. artikulua.** Hezkuntzaren arloa.

1. Hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak ikasliburuak aztertuko ditu, ziurtatze aldera haietan informazio egiazko, zabal eta zorrotza ematen dela Gerra Zibilean eta frankismoan zehar Nafarroan gertatutakoei buruz.

2. Nafarroako Gobernuak urteroko Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Heziketa Programan behar diren jarduketak sartuko ditu, foru lege honen helburuak betetzeko.

**IV. TITULUA**

**Oroimenezko monumentu, parke eta elementuak babestea eta mantentzea**

**15. artikulua.** Oroitzapenaren Parkea.

1. Sartagudako Oroitzapenaren Parkeak aintzatespen eta babes ofizialik handiena izanen du, horri buruzko foru araudiaren barruan.

2. Oroitzapenaren Parkea mantentzeko eta hobetzeko gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordainduko dira.

**16. artikulua.** Alfontso XII.aren Gotorlekuko presondegia.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu Alfontso XII.aren Gotorlekua edo Ezkabako Gotorlekua eta bertako hilerria oroitzapen historikoaren toki gisa babesteko, toki horretan Gerra Zibilean zehar egon zen presondegiari eta hartan gertatutakoei dagokienez. Gotorlekuaren alboko hilerrian toki bat prestatuko da gotorleku horrekin zerikusia izandako biktimak, beren senitartekoek identifikatu eta erreklamatu ez dituztenak, hilobiratzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek urtero eginen dute presondegi horretan kartzelatuta egon ziren preso oroitzapenaren aintzatespen- eta omenaldi-ekitaldi bat, oroitzapen historikoaren berreskurapenaren alde lan egiten



duten Nafarroako entitate eta kolektiboekin lankidetzan jardunez.

**17. artikulua.** Frankismoaren esklaboak.

Nafarroako Gobernuak frankismoaren esklaboen lanaren bitartez eginiko obra guztiak seinalatuko ditu. Seinale horiek honakoak jasoko dituzte: pertsona horien bizi-baldintzak, esklaboen kopurua eta egoera horiek publikoki ezagutzera emateko garrantzitsuak diren datu guztiak.

**18. artikulua.** Aitorpen publikoak.

1. Berariaz aitortzen da foru lege honetan aipatutako indarkeriaren biktimen duintasunaren alde nabarmendu diren elkarte, fundazio, entitate akademiko eta erakundeek eginiko lana.

2. Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren aintzatespen ekintzak bultzatuko ditu Gerra Zibilean eta frankismoaren garaian eraildako pertsonen oroitzapena oneratzeko, bai eta, erailak izan ez baziren ere, arrazoi politikoengatik Nafarroako herri askotan errepresioa eta umiliazio "eredugarriak" sufritu behar izan zituzten pertsonena ere.

3. Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin batera, bultzatuko du 1936ko uztailearen 18ko kolpe militarren ondoren eraildako kargu publiko edo funtzionarioen aitorpen publiko eta iraunkorra, plaka, monolito edo aipamen berariazkoen bitartezkoa.

4. Nafarroako Gobernuak hala eskatzen duten senitartekoei erraztuko die ordain eta aitorpen pertsonaleko ziurtagiria kudeatzea eta lortzea, Justizia Ministerioak ematen duena, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 4. artikuluan oinarrituta.

**Lehen xedapen gehigarria.** Epaiketen baliogabetzea.

Nafarroako Gobernuak Espainiako Estatuari eskatuko dio baliogabetu dezala herritar nafarrei egin zitzaizkien epaiketa oro, auzitegi militarrek nahiz zibilek eginak, hain zuen ere Errepublikarekin, Gerra Zibilearekin edo diktadura edota trantsizio garaian demokraziaren aldeko borrokarekin lotura zuten arrazoi politikoengatik egin zitzaizkienak, baita honakoek emandako epaiak ere: gerra kontseiluek, erantzukizun politikoen auzitegiek, Masoneria eta Komunismoa Erreprimitzeko Auzitegi Bereziak eta Ordena Publikoaren Auzitegiak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kontzentrazio-esparruetako omenaldiak.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak nafarrak egondako Europako kontzentrazio-esparru bakoitzean aipamen berezi bat paratuko du estatu-kolpe frankistaren ondoren eta Bigarren Mundu Gerran ehunka nafarrek faxismoaren aurka eta askatasunaren alde eginiko borroka omentzeko.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Oroitzapen Historikoaren arloko Batzorde Teknikoaren eraketa.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean eratuko da 5. artikuluan aipatzen den batzordea.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Desagertutako pertsonen lurperatze kolektiborako hitzarmena Iruñeko Udalarekin.

7.3 artikuluan aipatzen den hitzarmena hiru hilabeteko epean sinatuko da. Hartara, hobotik jada atera eta Aranzadi Zientzia Elkartearen biltegian dauden gorpuzkiak berehala lekualdutako dira.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Ekitaldi instituzionala.

Foru lege hau indarrean sartu ondoko urtean zehar, Nafarroako Gobernuak ekitaldi bat eginen du parke horretan, biktimei omenaldia egiteko eta parkea inauguratzeko, eta, ekitaldi hori egiteko, lankidetzan arituko da Nafarroako Parlamentuarekin, Sartagudako Udalarekin, 1936ko biktimen senitartekoen elkarteekin eta oroitzapen historikoz arduratzen diren elkarteekin lankidetzan.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Oroitzapenezko plaka Nafarroako Gobernuan.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak plaka bat jarriko du Diputazioaren eraikinaren fatxadako ageriko leku batean, 1936ko Gerra Zibilean zehar Nafarroan eraildako Foru Diputazioko funtzionarioen eta langileen omenez. Plaka horretako testua gaztelaniaz eta euskaraz idatzita egonen da, eraildako pertsonen izenak jasoko ditu eta langile publiko horiek Errepublikaren legezkotasunaren defentsa egin izana aipatuko du.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Oroitzapenezko plaka Nafarroako Parlamentuan.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkari gorena denez, bere egoitzako atalondoko leku nabarmen batean plaka bat jarriko du, altxamendu militarren ondorioz eraildako kargudun nafar guztiak omentzeko eta aintzat hartzeko. Testuak Nafarroa-

ko bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, eta eraildako pertsonen izenak eta kargua aipatuko ditu, bai eta herriaren izena, toki-kargudunak zirenen kasuan.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen

dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK**

#### **AURKEZTUA**

Aldatzeko zuzenketa, Bat idatz-zatiko azken esaldia kentzekoa. Honela geldituko litzateke testua:

“Aprobetxamenduaren iraupena urtebete baino luzeagoa denean, behar diren ordenantzetan edo baldintza-pleguetan klausula bat jarriko da, aprobetxamenduaren kanona edo prezioa urtero eguneratzekoa, kontsumoaren gaineko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren ariora”.

Zioak: planteatzen den proposamenaren aplikazioa erraztea.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errefusa dezan ospitaleetan modu ambulatorioan ematen diren farmakoen koordainketa berria.**

**OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko urriaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errefusa dezan ospitaleetan modu ambulatorioan ematen diren farmakoen koordainketa berria.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Errefusa dezan ospitaleetan modu ambulatorioan ematen diren farmakoen koordainketa berria.

2. Eska dezan Osasun, Gizarte Gai eta Berdintasun Ministerioak berehala indargabetu dezan Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Oinarriko Zerbitzu Zorroaren zuzendari nagusiaren 2013ko irailaren 10eko Ebazpena, zeinaren bidez

aldatzen baitira Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-prestazioan sartzen diren medikamentuak erabiltzailearen ekarpenen bidez finantzatzeko baldintzak.

3. Beste autonomia erkidego batzuetako gobernuek egin duten bezala, jendaurrean iragar dezan aipatu ebazpena ez dela beteko gure autonomia erkidegoko lurraldean, eta, derrigorrez aplikatu behar baldin bada, ahal diren formula guztiak bila ditzan PPren neurriak bidegabeki zigortzen dituen gaixoei konpentsatzeko.

4. Gora jotzeko errekurtsio bat aurkez dezan bigarren puntuan aipatzen den Espainiako Gobernuaren ebazpen horren aurka, beste autonomia erkidego batzuek eginen duten modu berean, konbentziturata gaudelako neurri horrek bidegabekeria soziala dakarrela."

Iruñean, 2013ko urriaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko urriaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan, sortu zeneko helburuak lortzeko duen eraginkortasun urriagatik eta Nafarroako Gobernuak Fundazioaren emaitzak hobetzeko behar diren aldaketak proposatzeko interesik ez edukitzeagatik”.

Iruñean, 2013ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere babesa adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari.**

### *GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Gizarte Politiketako Batzordean izapidetuko dela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere babesa adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero

Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari. Mozioa 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera